



PRENTSA OHARRA: 2022KO TXOSTENA

Guztira 5.954 pertsona daude taldean, aurreko ekitaldian baino 197 gehiago:

GUREAKEKO PLANTILLA PANDEMIA AURREKO ZIFRETARA ITZULI DA

- **Gizarte-ekonomiako euskal taldearen jarduera-bolumena pandemiaren aurreko ekitalditik hurbil kokatu da, 210 milioi euroko fakturazio finkatuarekin.**
- **Laguntza-premia handiak dituzten pertsonen aldeko apustua indartu da, eta dagoeneko taldearen erdia baino gehiago adimen-desgaitasuna edo gaixotasun mentala duten pertsonak dira.**

Donostia, 2023ko otsailaren 22a. Gaur goizean aurkeztu dira GUREAKen datu ekonomikoak eta plantillari buruzkoak, 2022ko Urteko Txostenean jasoko direnak. Aurkezpena Donostiako egoitza nagusian egin da eta informazioa zabaltzeaz arduratu dira: Iñaki Alkorta, GUREAKeko presidentea, Asier Vitoria, zuzendari nagusia eta Ainhoa Askasibar, Itinerary dibisioko zuzendaria.

2022ko ekitaldian GUREAKek bere **plantilla erabat berreskuratzea lortu du, 5.954 pertsonarekin, eta horrela, pandemia aurreko zifretan kokatu da.** Gainera, igoera hori GUREAKen ereduarekin bat eginez eman da, izan ere, **lana aurkitzeko zailtasun gehien dituzten pertsonen aldeko apustua egin da;** GUREAKen laguntza-premia handienak dituzten pertsonak bezala ezagutzen dena, batez ere, adimen-desgaitasuna eta gaixotasun mentala duten pertsonak, hain zuzen ere. **Gaur egun, profil hori euskal taldearen plantillaren erdia baino gehiagori egokitzen zaio, zehazki %57 (3.396 pertsona).**

Iñaki Alkortak, GUREAKeko presidentea, laburbildu duenez, GUREAKek, oro har, **pandemiaren ondorengo ziurgabetasunari aurre egin behar izan dio**, “gure ezaugarri diren ildoetan sakondu dugu, hala nola, lan komertzialean, negozioen dibertsifikazioan eta ibilbide soziolaboralean”.

Zentzu horretan, Itineraryko zuzendaria den Ainhoa Askasibarrek azaldu du bere dibisioan egiten duten lana funtsezkoa dela GUREAKen erdua eta bere misioa talde osoan barnera dadin eta, horrela, “norabide berean arraun egin dezagun”. Askasibarrek azaldu duenez, **GUREAKek urtez urte egiten duen lana gidatzen duen ikuspegia da ibilbide soziolaboralak garatzea, desgaitasuna duten taldeko pertsona guztiek ahalik eta inklusio pertzepzio handiena izan dezaten.** “Guztiok ditugu gure itxaropenak eta berezitasunak, eta GUREAKen erronka da horietako bakoitzari ibilbide pertsonalizatu batekin erantzutea”. Itineraryko zuzendariaren hitzetan, **erronka horri aurre egiteko tresnak prestakuntza, egokitzapenak, laguntza indibidualizatuak eta sareko lana dira.** “Gure barne filosofia ‘prestatu eta ondoren hautatu’ da, eta 360ºko

egokitzapenak egiten ditugu, hau da, lanaren antolamendu osoan, pertsona bakoitzarentzat eskuragarri eta egokituak diren benetako lan-aukerak sortzeko eta mantentzeko, eta, gainera, erakunde publiko eta pribatuekin lankidetzan aritzen gara gizarteratzeko aukera horiek biderkatzeko”, gaineratu du.

inklusioanBAT

Gipuzkoako lurraldean desgaitasuna duten pertsonentzat aukerak biderkatzeko azken helburu horrekin sortu da **inklusioanBAT proiektua, enpresei eta erakundeei beren inklusio-planean aholkularitza eta laguntza emateko programa.**

inklusioanBAT programaren bidez, **Itinerary dibisioak hainbat gizarteratze-formula aholkatzen eta proposatzen ditu, hala nola, zuzeneko kontratazioa, inplantak, zerbitzuak ematea, frankiziatuak, enplegu publikoa, Zerbitzu Okupazionala, etab.** Horrela, GUREAKek Gipuzkoako enpresen eta erakundeen esku jartzen du inklusioan duen bere esperientzia eta ezagutza. **Gaur egun, 1.945 pertsona ari dira jardueraren bat egiten, formula horietako baten bidez, GUREAKetik kanpo dauden lan inguruetan.**

Emaitzak dibisioka

Azkenik, Asier Vitoriak, GUREAKeko zuzendari nagusiak, hartu du hitza eta dibisio bakoitzaren emaitzen errebaso laburra egin du. Azaldu duenez, “neurri handi batean merkatu bakoitzaren berezko egoerak baldintzatuta, **dibisioen emaitzak nahiko desberdinak izan dira**”. 2022ko jarduera-bolumena pandemiaren aurreko ekitalditik gertu kokatu da, **210 milioi euroko fakturazio finkatua izan baitu talde-mailan.**

Industriaren alorra da ekitaldia modu positiboan amaitzea lortu ez duen bakarra, “nahiz eta urte hasieran egiten genuen aurreikuspena hobetu dugun, ez da nahikoa izan errentagarritasuna handitzeko eta emaitza positiboa lortzeko”. Vitoriak adierazi duenez, **arloan horretan ahalegin bikoitza egiten ari dira duela bi urteko emaitza berberak lortzeko, kostuen igoeragatik eta merkataritzako tentsioagatik.** Hala ere, industria dibisioak plantilla mantentzea lortu du, eta 2023ri begira, jarduera-mailari eutsiko diola ere aurreikusten dute, besteak beste, **elektronikan, mugikortasunean eta Smart Homean izandako emaitza positiboari esker, baita automobilgintzaren sektorean marjinak berreskuratzeari esker ere.**

Zerbitzuak dibisioak eskaintza dibertsifikatua du, besteak beste, eremu soziosanitarioan, elikaduran, lorezaintzan edo banaketan, eta **2022ko jarduera guztiek emaitza positiboak izan dituzte.** Dibisioaren barruan, honako jarduerak nabarmentzen dira: sektore soziosanitarioa, 500 pertsona baino gehiago ari dira arloan horretan lanean GUREAKen bitartekaritzarekin, eta elikadurarena, bezeroen beharrei erantzuteko etengabeko hobekuntza-prozesuan murgilduta dagoena. Aldi berean, **Vitoriak adierazi du Zerbitzuak dibisioaren estrategia esparru bakoitzean erreferente diren enpresekin harreman estuan oinarritzen dela eta aurtengoan, adibidez, Eroskirekin lankidetzan laugarren supermerkatu inklusiboa irekitzea lortu dutela.**

Marketing atalaren baitan, nabarmentzekoa da **Dokumentu-Tratamenduan eta Online Marketinean jarduera areagotu egin dela.** Aurreikusitakoa baino emaitza estuagoekin bada ere, Adimen Artifizialeko ereduaren entrenamenduarekin edo justiziaren digitalizazioarekin lotutako proiektu berriek 2023rako lan-aukera berriak sortzea aurreikusten dute.

Azkenik, GUREAK Navarrak eta Arabak, dibisio guztietako jarduerak dituztenak, **ezegonkortasuna jasan dute industria arloan ere,** eta nahiz eta ekitaldia positiboan amaitu duten, Asier Vitoriak adierazi du 2023rako beharrezkoa izango dela tokiko bezeroak erakartzeko lan egitea.

2023ko helburuak

Amaitu aurretik, Vitoriak nabarmendu nahi izan du “emaitza positiboa lortu izanak gure inbertsio-planari eusteko aukera emango digu”, eta gogorarazi **du martxoaren amaieran bukatuko direla egoitza nagusiko industria-planta handitzeko lanak**, eta, ondorioz, 360 pertsona baino gehiagoren lan-baldintzak hobetuko direla. Halaber, udan **IOM-e eraikineko obrak amaitzea aurreikusten da, GUREAKen formakuntza eskaintza jasoko duena**. Era berean, Vitoriak ez du ahaztu nahi izan **Zapategi poloa**, “Lasarte, Usurbil edo Hernani bezalako herrietako erabiltzaile eta eskatzaileei erantzuteko epe ertainerako proiektua, eta elektronikaren aldeko industria-apustua indartu nahi duena etorkizuneko jarduera gisa, desgaitasuna duten pertsonentzat lan-aukerak sortzeko Gipuzkoan”. Asier Vitoriak amaitu aurretik adierazi du inbertsio guztiak ezinbestekoak direla merkatuan lehiakortasuna mantentzeko eta, ondorioz, GUREAKen inklusio soziolaboraleko ereduaren iraunkortasuna bermatzeko.